

2011KO ABENDUAREN 7AN EGINDAKO EZOHIKO UDAL BILKURA

Herria: Bakio

Tokia: Bakioko Udaletxea

Eguna eta ordua: 2012ko abenduaren 7an, arratsaldeko 7:00etan

BATZARKIDEAK:

Lehendakaria: AITOR APRAIZ IMATZ jauna

Zinegotziak:

- PALOMA DE EPALZA GARCES DE LOS FAYOS
- ELSA MARÍA IMATZ BASARRATE
- IKER MURUAGA GOIKOETXEA
- LUIS FLORENCIO ZABALA SANTA ANA
- GORKA RENTERIA GARAI
- FELICIANO JAUREGIZAR ORAINDI
- ALBERTO BILBAO BELTRÁN DE GUEVARA
- AMETS JAUREGIZAR BARAIAZARRA
- MIREN LUKE VERDES CEARRA
- JON PELI HORMAECHE ASOLO

Helburua: Lehenengo deialdian, udalaren ezohiko bilkura egitea. Era berean, kontuan hartu behar da Juan Francisco Eiguren Kortazar idazkariak bilkura horretako zinegotziei deitu deustela legeak agintzen dauanaren arabera.

Idazkari jaunak batzarrari hasikera emoteko legezko “quorum”a dagoala egiaztatu orduko, alkate jaunaren lehendakaritzapean ondorengo gai honeek eztabaidatu eta erabagi dira:

Alkate jaunak, Udalbatzari hasikera emon eta berahala, Felix Jauregizar zinegotziak, Bildu/Bakio taldearen izenean, kexea azaldu dau bilera hau goizeko 08:30ean egiteko deialdia egin dalako, arratsaldean egiteko deitu beharrean, ohikoa dan modura, udal legegintzaldi honen hasieran udalbatzak arratsaldez egitea erabagi zan-eta.

Horrek dino be, alkatearen eskumena izan arren udalbatzako deialdia egitea, errespetu falta dala astelehenean talde biak batzartuta egon, eta, ganera, eurak espedientea fotokopiatzen udaletxean ordu biak arte egonda, alkateak udalbatzarraren orduari buruz ezer ez adierazotea, eta orduaren barri egun horretako eguerdian emotea, korreo elektroniko bidez.

Aitor Apraiz alkateak era honetara erantzun deutso: udal legegintzaldi honetako ohiko udalbatzak arratsaldeko 7:00etan egitea erabagi ziran, baina aparteko udalbatzei buruz ezer ez zan erabagi. Halanda be orain arte aparteko udalbatza gehienak arratsaldez egin dira, salbuespenen baten bat izan ezik, eta, oraingotan goizez egitea erabagi bada be, dokumentazioa prestau behar izan dalako izan da, datorren astelehenean, abenduaren 10ean, Foru Aldundian aurkezteko.

Felixek dinotso minduta dagozala ez udalbatza egiteko aukeratu dan egunagaitik, astelehenean udaletxean egonda hori zein ordutan egingo dan ez zehazteagaitik baino.

Aitor eta Felixen artean eztabaida izan da, eta bakotxak berenari eutsi deutso.

Jarraian, udalbatzak gaurko aztergaia eztabaitzeari eta erabagitzeari ekin deutso.

HALA BEHAR BALITZ, DOIKUNTZA PLANGINTZA, MAILEGU ESKAERA, OBLIGAZINOEN JUDIZIOZ KANPOKO ONARPENA ETA 2012RA LUZATUTAKO 2011KO AURREKONTUAREN 3. ALDARAZPENA ONARTU, BETI BE GAI HORREEK AZTERGAIEN ZERRENDAN SARTZEKO ALKATETZAREN PROPOSAMENA BERRETSI ETA GERO.

A) Atoan, Aitor Apraiz alkate jaunak, bere 2012-12-03ko proposamena irakurri dau. Horrela bada, horren bidez, premiazkotasuna dala eta, doikuntza plangintzari, mailegu eskabideari, obligazioen judizioz kanpoko onarpenari eta 2012ra luzatutako 2011ko aurrekontuaren hirugarren aldarazpenari buruzko gaiak gaurko udalbatzaren gai zerrendan sartzeko eskatzen da, ostean, udalbatzak horreen ganeko erabagiak hartu daizan.

Zinegotziek bozkatzeari ekin deutse eta horrela emoitza hauxe izan da:

EAJ/PNV udal taldeko Aitor Apraiz, Paloma de Epalza, Floren Zabala, Gorka Renteria, Iker Muruaga eta Elsa Imatz zinegotziek alkatearen proposamenaren alde bozkatu dabe, gai horreek gaurko udalbatzaren gai zerrenda sartzeko.

BILDU/BAKIO udal taldeko Feliciano Jauregizar, Alberto Bilbao, Amets Jauregizar, Miren Luke Verdes eta Jon Peli Hormaetxe zinegotziek, barriz, proposamen horren aurka bozkatu dabe.

Horrenbestez, Udalaren Osoko Bilkurak, aitaturako gaiei buruz udalbatza honetan erabagia hartzea premiazkoa dala ebatzi dau.

B) Aitor Apraiz alkateak dino gaurko gaiak lau izan arren (doikuntza plangintzari, mailegu eskabideari, obligazioen judizioz kanpoko onarpenari eta 2012ra luzatutako 2011ko aurrekontuaren hirugarren aldarazpena) alkarren artean loturea edo zerikusia daukiela, baina euretz banan-banan azaldu eta bozkatuko dirala.

Mailegu eskabidea:

Alkateak, gaia sarrerea emonaz, berba honeek erabili dauz:

Bakioko Udala gaur egun egoera ekonomiko larrian dago, pilatutako zorra 6.040.000 eurokoa da, eta hartzekodunak, gehien bat, Bakiorako zerbitzu eta obra arloan beharrak egin dabezenak dira.

Foru Aldundiak Bakio modura egoera latzean dagozan udalarentzat urtenbidea aurreikusi dau, hau da, udalek maileguaren bitartez zor guztia edo, behintzat, asko ordaindu ahal izateko neurriak ahalbideratzea, baina horretarako udalek doikuntza plana onartu behar dabe, maileguaren epe-mugan gastuak murriztu eta diru sarrerak izango dabezela justifikatuz, beti be maileguaren gehi interesen zenbatekoaren itzulketa bermatzeko. Eta doikuntza planak, maileguaren eskaerea barruan dala, udalaren onespena ez eze Foru Aldundiarena be jaso behar dau.

Bakioren kasuan mailegua hamabost urterako eskatuko da eta horrerri aurre egiteko bideragarritasun edo doikuntza plana prestau da, urte-urtez maileguari eta interesei aurre zelan egingo jaken azaltzeko. Plangintza horrek, ganera, dakar hornitzaileen ordainketa plangintzan sartzen diran 1.042.534,18 euroko kredituen onarpena onestea eta indarrean dagoan udal aurrekontuaren (2011koa 2012ko ekitaldira luzatuta) aldarazpena, zenbateko hori aurrekontu barruan zainpetzeko.

Adierazpen horrek egin, eta BILDU/BAKIO taldearen txanda heldu da horreei guztiorreei buruz eritxia emon eta plantamendua azaltzeko. Horrela bada, Felix Jauregizar zinegotziak ondorengo hau adierazo dau:

Udala dagoan egoeran zergaitik dagoan ulertzeko, ezinbestekoa da gogoratzea 2006tik aurrera EAJ/PNVk eta ezker abertzaleak izan ebezan planteamenduak. Urte horretatik aurrera azken honek hainbat bider salatu izan dau udal aurrekontuko diru sarrerak puztuta egoazala, bertan jarritako zenbatekoak gero gauzatzen ez ziralako, eta gastuak, ostera, gero eta handiagoak izakeran ezin ziran ordaindu, eta urtero bardin gertatzen zan. Planteamendu horren aurrean EAJ/PNVk udal aurrekontuaren egokitasuna defendidu eta errua krisi ekonomikoari hasi zan leporatzen. Eta azkenean, argi eta garbi geratu da gaur egun Bakioko Udalaren egoera ekonomikoaren errua ez dala krisiarena, udal gobernuak egon da EAJ/PNVren kudeaketa txarrarena baino.

Ganera, erru handiagoa Foru Aldundiarena izan da, urtero-urteroko udal aurrekontuaren barri izan arren ezelango neurrik hartu edo oharpenik egiten ez ebalako. Horregaitik uste dogu Foru Aldundia gehiago inplikatu beharko litzatekela Bakioko egoerea aurrera aterateko orduan.

Gure ustez mailegua kontratatzea ez da urtenbidea, horrek hamabost urtez herria zorpetuta egotea ekarriko daulako, ze ezingo da inbertsinorik egin eta zerbitzuak, barriz, murriztuta egongo dira.

Beraz, egoera honek inondik-inora be horrela ezin dauela segidu alde biok ados gagozan ezker, orain arte egin diran akatsak zergaitik barrero egin behar dira?; hau da, egoera ekonomikoaren hazkundera urigintza garapenean oinarrituta, zehazki, eraikuntza, instalazio eta obrei buruzko zergen bilketan itxaropena gordeta, danok dakigunean txosten teknikoan ageri diran zerga horren zenbateko guztiak kobratzea ezinezkoa izango dala. Horrek ekarriko dau hiru urte barru fakturak ezin onartuta ibili beharra, eta, ondorioz, neurri gogorragoak hartzera behartuta egon beharra, esaterako, Foru Aldundiak udalkutxatik diru gehiago kentzea edo/eta beharginentzat kaltegarriak izan leitezkezan neurriak hartzea. Ganera, gerta daiteke be euriborra dala eta maileguaren interesak oraingoz aurreikusi ezinezko gorakadea izatea, eta kasu horretan antzeko neurriak hartu beharra.

Aitor Apraiz alkateak dinotso mailegu eskatzea dala momentu honetan udalari geratzen jakon urtenbide bakarra, udalak zorrak ordaindu gura badauz behintzat, eta horretarako Foru Aldundiak, doikuntza planaren arabera, maileguaren eskaria baimentzeko aukerea indarrean ipini dauan ezker, aukera hori aprobetxatu beharra dagoala.

Felix Jauregizar, bere aldetik, esandakoa berronetsi egin dau, hau da, mailegua eskatzea ez dala urtenbidea Bakioko egoera ekonomikoa zuzentzeko. Ganera, idazkariak be txostenean arkitektoaren txosten teknikoan ageri diran eraikuntzei buruzko zergak batuko diran ziurtasuna zalantzan jarten dauala. Eta zinegotzi horrek ondorengo adierazo dau:

Urtenbidea bai da BILDuko Bizkaiko Biltzar Nagusian egindako proposamen hau: Udalkutxan “ustekabekoak” gastuetarako dagoan partidatik diru multzo bat bideratu Bakioko antzeko egoeran dagozan udaletara zorrak ordaindu ahal izateko, eta jasotakoa itzultzeko modua izango litzateke udal bakotzak udalkutxatik urtero %10a gitxiago jasotea, horrela, ez litzateke interesik ordaindu beharrik izango. Eta, Bakiorei jagokonez, guk egin doguzan kalkuluen arabera, bide horrek herriko zerbitzuak era normalean emotea ekarriko leuke, bai eta kiroldegiaren zerbitzua zabalik eukitea be.

Arkitektoaren txostenean ageri diran zenbatekoak sinesgaitzak dirudi, batetik, 2013-2015 arteko urteetan aurreikusten da arau subsidiarioetako berrikuspena egingo dala, eta eraikuntzei buruzko zerga potoloenak, ziur asko, berrikuspen horretan oinarrituta dagozalako; eta, bestetik, zergen zenbatekoen kalkuluak gaur egun indarrean dagoan zergaren karga-tasaren (%5a) arabera eginda dagozalako; izan be, maileguak iraungo dauan bitartean (15 urte) karga-taseak izan leiken bilakaerea aurreikustea ezinezkoa da. Eta, ganera zenbatekoen batuketa txarto eginda dago.

Idazkariaren txostenean aztertu ezker, ez dala ulertzekoa, batetik, zergen zenbatekoen gauzapeña zalantzan jartea eta, bestetik, txostena espedientearen aldekoa izatea (atal horrerri jagokon zatia irakurri dau). Beraz, Bilduren ustez, txostenean ageri dan oharpenaren arabera, ezin da espedientearen alde egin.

Idazkariak, adierazo dau zergen zenbatekoak ageri dan txostena Bakioko urigintzako planeamendua ezagutzen dauan teknikoak idatzi dauan ezker, horren arabera, berak

aldeko txostena egin dauala, baina bertan ageri dana urteen zehar gauzatuko dala ziurtatzea ezinezkoa dala, hori, udalaz gain, beste egoeren mende dagoalako.

Aitor Apraiz alkateak dino gauza bat dala arkitektoaren txosten teknikoak ontzat emotea, eta beste bat bertan azaltzen dana urtero-urtero gauzatuko dala ziurtatzea, ze hori inork be ehunetik ehun baieztatu edo ezeztatu ezin dau-eta, eta egin behar dana da txosten teknikoan azaltzen dana beteten ahalegindu.

Felix Jauregizarrek dino:

Foru Aldundiak udala behartu egiten dau urigintzako planak garatzen, baina garapen hori udalaren eta Aldundiaren esku ez dagoan ezker, merkatuaren esku baino, ia sikiera be ez diran plan guztiak garatzen.

Ganera, ikusita lehengo udal gobernuaren egitasmoaren helburuek porrot egin dabela, hau da, herriak 4.000 biztanle eukitera heltzea, horretarako, besteak beste, etxebizitzak non-nahi eraikiz; izan be, Bakio 2.500 biztanle izatera baino ez da heldu eta, ganera, baztarrak etxebizitza dagoz hutsik. Gure ustez, aztertu beharra dago, herritarren partaidetzaz, Bakio zelako jendeak osotzea nahi dogun, zelako etxebizitza mota egitea nahi dogun eta, azken batean, zelako herria nahi dogun, eta hori erabagi ondoren, urigintza planeamendua berrikusi erabagirikoa gautzatzera bideratzeko. Ordea, EAJ/PNVren jokabidea bestelakoa izan da, herritarren nahiera makurtu beharrean, etxegileen planeamenduak ontzat emon eta indarrak eurok gauzatzera bideratu.

Azkenik, gogoratu dau alkateak udal hauteskundeetako programan herritarrei gonbidapena luzatu eutsela danon artean beharra egiteko, Bakio zelako herria izan behar dan zehazteko bidean. Baina, alkatea, daborduko, ez dagoala esandakoa beteten, aurreko udal gobernuaren ildotik jarraitzen daualako.

Horren ostean, Alkateak eskatuta zinegotziek botoa emoteari ekin deutse, emoitza hauxe izanik:

Udalbatzak, korporazinoko zinegotzien legezko kopuruaren gehiengo osoa osotzen daben EAJ/PNVko zinegotzien aldeko botoagaz (Aitor Apraiz, Floren Zabala, Gorka Renteria, Paloma Epalza, Iker Muruaga eta Elsa Imatz) honako erabagi hau hartu dau:

LEHENA.- bagilaren 21eko 5/2012 Foru Arauaren 1. artikulua ezarritako baldintzak beteten dabezan zenbait zorren ordainketa finantzatzeko asmoz (horreek guztiak espedientean azaltzen dira), epe luzerako zorpetze eragiketa hitzartzea onestea. Eragiketa hori jarraian aitatzen diran erakundeakaz eta kopuruen arabera egingo da:

Kutxabank (%50), Caixa (%25) eta BBVA (%25).

Finantza baldintzak Bizkaiko Foru Aldundiagaz adostuko dira.

Zorpetze eragiketaren ezaugarriak:

- Zorpetze eragiketaren zenbatekoa 5.000.000 eurokoa da —
Eragiketaren epea: 15 urte, urte biko gabealdiagaz.
- Eragiketaren finantza interesa honakoa da: urteko Euriborra + 4,75%
(urtero berrikusiko dana).
- Zabaltze komisinoa + 0,50% behin baten baino ez.
- Hileko amortizazioa (kuotak Udalkutxatik kobratuko dira hile
bakotxaren 20an).
- Bermea: udalarena.

Korporazinoko alkate-udalburuari, Aitor Apraiz Imatz jaunari, ahalmenak emotea erabagetakoa betearazo daian, beti be beharrezko izapideak aurrera eroanez eta, hala jagokonean, beharrezko agiriak izenpetuz.

Doikuntza Plana

Aitor Apraiz alkateak dino:

Doikuntza plana hamabost urtetarako da eta ez da bakarrik urigintza garapenean oinarritzen, alderantziz, nahiko korapilotsua da. Plan hori ondorengo egintzetan oinarritzen da:

- 1) *gastuen murrizketan, batez be gastu arrunten atalari jagokonez.*
- 2) *ondasun higiezinaren ganeko zergaren karga-tasaren eta etxeko zaborrak batzeko zerbitzua emoteagaitiko tasaren aldarazpenetan.*
- 3) *Foru Aldundiaren alde hamabost urterako egindako Txakolingunearen kontzesinoan, udalak, horren ondorioz, diru sarrera zehatz batzuk jasoz.*
- 4) *herriko basoen aprobetxamenduarengatiko jasoko dan diruan, eta.*
- 5) *urigintza garapena dala-eta aurreikusitako eraikuntzei buruzko zergan..*

Beraz, horreek guztiorreek berme modura aurkeztu dira maileguari eta horren interesei aurre egiteko, Bakiok, gaur egun egoerari aurre egiteko, daukazan baliabideak diralako. Edozelan be, horrek ez dau gura esan, aurrerantzean eta denborea igaro ahala Bakiok beste baliabide ekonomikoren bat edo batzuk izango ez dauzanik.

Felix Jauregizar zinegotziak dino Foru Aldundiak, udal arkitektoaren txostena aurrean dala, doikuntza plana ezin dauala baimendu, bertan ageri diran zenbatekoak ez dirala kobrauko jakinda, baimena emon ezkeru, erabagi horrek zer pentsa emongo leuke-eta.

Aitor Apraiz alkateak erantzun deutso esanez baimena emotea itxaroten dauala.

Segiduan, udalbatzak, korporazinoko zinegotzien legezko kopuruaren gehiengo osoa osotzen daben EAJ/PNVko zinegotzien aldeko botoagaz (Aitor Apraiz, Floren Zabala, Gorka Renteria, Paloma Epalza, Iker Muruaga eta Elsa Imatz) honako erabagi hau hartu dau:

BIGARRENA.- Doikuntza plangintza onestea; izan be, haren edukiak Bizkaiko Foru Aldundiaren bagilaren 21eko 5/2012 Foru Araua, bagilaren 26ko 111/2012 Foru Dekretua eta garagarriaren 10eko 4792/2012 Foru Agindua beteten dauz.

Doikuntza plangintza Bizkaiko Foru Aldundiari bialtzea, 2012ko abenduaren 10eko mugaeguna bete baino lehenago.

Obligazinoen judizioz kanpoko onarpena

Felix Jauregizar zinegotziak galdetu dau ia zergaitik dagozan 1.042.534,18 euroko gastua udal aurrekontuan zainpetu barik.

Aitor Apraiz alkateak erantzun deutso esanez udal aurrekontuan zainpetu barik egon diran gastuak ordaindu diralako.

Alberto Bilbao zinegotziak idazkariari galdetu deutso ia legala dan udal aurrekontuan zainpetu barik dagozan gastuak ordaintzea.

Idazkariak erantzun deutso esanez ez dala legala.

Udalbatzak, korporazinoko zinegotzien legezko kopuruaren gehiengo osoa osotzen daben EAJ/PNVko zinegotzien aldeko botoagaz (Aitor Apraiz, Floren Zabala, Gorka Renteria, Paloma Epalza, Iker Muruaga eta Elsa Imatz) honako erabagi hau hartu dau:

HIRUGARRENA.- aurreko ekitaldietako edo ekitaldi honetako 1.042.534,18 euroko kredituen onarpena onestea; espedientearen I. eranskinean zerrendatzen diran kreditu horreek 5/2012 Foru Arauak ahalbidetutako hornitzaileen ordainketa plangintzan sartzen dira, baina ez daukie behar besteko aurrekontu zainpeketarik.

2012ra luzatutako 2011ko aurrekontuaren hirugarren aldarazpena

Aitor Apraiz jaunak horrerri buruzko laburpena egin ostean, zinegotziek botoa emon dabe, eta ondorioz emoitza hauxe izanda:

Segiduan, udalbatzak, korporazinoko zinegotzien legezko kopuruaren gehiengo osoa osotzen daben EAJ/PNVko zinegotzien aldeko botoagaz (Aitor Apraiz, Floren Zabala, Gorka Renteria, Paloma Epalza, Iker Muruaga eta Elsa Imatz) honako erabagi hau hartu dau:

LAUGARRENA. Foru Aldundiak zorpetze eragiketa baimendu eta gero, egiaztagirian finantzatua izateko sartutako obligazinoren batek behar adinako aurrekontu estaldurarik ez badauka eta kredituaren aldarazpena badakar kreditu gehigarriaren modalitatean, aurrekontuaren aldarazpen egokia egitea (espedientean dagoan dokumentazioagaz bat etorriz); izan be, aldarazpen hori eraginkorra izango da erabagi honen lehenengo unetik; era berean, erantsitako zerrendan aitatzen diran eta beharrezko atxikipenak eginda daukiezan kredituak aplikatzea 2012ko ekitaldiko aurrekontuaren kontura, beti be beharrezko partidetan kargatuz.

Idazkariak gogoratu dau hemen hartutako erabagiak eraginkorrak izateko, Bizkaiko Foru Aldundiaren Udal Harremanen Sailak aldeko txostena egin edota baimena emon beharko dau.

Ostean, Ametz Jauregizar zinegotziak aurreko udalbatzan eskatutakoa gogoratu dau, hau da, jasoten dauzan idatziak euskeraz idatzita egotea, eta, beraz, eskatzen dau hurrengo udalbatzarrerako idatzi guztiek euskeraz eta erdaraz egotea.

Horren ostean, Alberto Bilbao zinegotziak dino urigintza aprobetxamenduei buruzko agirian zenbatekoen batuketa txarto dagoala eginda, 1.300.000 euroko aldea dagoalako, eta agiri hori doikuntza plangintza barruan onartu izana dala txarrena.

Idazkariak dino agiri hori onartu dan ezkerero, Foru Aldundira idatzita dagoan lez bialdu behar dala, eta azken honek adierazoko dauala adierazo beharrekoa.

Aitor Apraiz alkateak dino Foru Aldundira hemen onartu diran agiriak bialduko dirala, eta txarto edo ondo dagoan esango dauala, eta, horren arabera, hartu beharreko erabagiak hartuko dirala.

Eguneko aztergaien zerrenda barruan gai gehiagorik eztabaidatu eta erabagitzeko ez dagoanez, alkate jaunak batzar hau 19:20an emon dau amaitutzat, eta horrelaxe egiaztatu dau idazkariak.

Alkatea

Idazkaria